


San Juan ante Portam Latinam, Neolito Berantiarreko indarkeria handiaren lekuko

San Juan ante Portam Latinam (Guardia, Araba) Neolitoko aztarnategi berezietako bat da, 338 pertsona baitaude hilobiratuta elkarrekin, eta askok indarkeria-zantzu argiak dituzte. Orain, [Natureren Scientific Reports aldizkarian argitaratu duten lan](#) batean, aurretik dokumentatu gabeko banakoak identifikatu eta aztertu dituzte.

Hala, 338 banakoetatik ia laurdenek traumatismoren bat dutela ikusi dute, eta gehiengoa mutil gazteak edo gizon helduak dira. Hortik ondorioztatzen dute haiek zirela gerretan eta borroketan parte hartzen zutenak, eta indarrez zauritzen eta hiltzen zirenak. Hala ere, haurren eta emakumeen gorpuak ere hilobiratu zituzten haiekin batera; batzuk geziz zaurituak edo hilda. Hortaz, adin eta sexu guztieta-ko pertsonen eragin zien indarkeriazko gertakariak.



San Juan Ante Portam Latinam aztarnategiko hezurak. Tartean, arma gisa erabilitako suharri bat ere ageri da. ARG.: Aranzadiko Antropologia Saila.

Ikertzaileen esanean, Neolito Berantiarrean Europa osoan dokumentatutako indarkeriazko gertakari handiena da. Haien ustez, litekeena da presio demografiko handiko garai bat izatea eta kultura desberdinetako taldeen arteko lehia eta gatazka sortu izana. Inguruko beste leku batzuetan ere aurkitu dira garai hartako indarkeria-zantzuak; panorama horrek iradokitzen du talde etsaien arteko indarkeria antolatua zegoela. ●

Txinpantzeek ere menopausia badutela frogatu dute

Txinpantze basatiek ere menopausia izaten dutela frogatu dute nazioarteko ikerketa batean. Zehazki, baieztatu dute Ugandako Kibale Parke Nazionaleko txinpantze emeek beren bizitzaren % 20 ematen dutela bizirik ugaltzeko gaitasuna galdu ondoren.

Orain arte, zientzialariek uste zuten ezen, gizakiek gain, itsas ugaltun gutxi batzuek baino ez zutela izaten menopausia, eta amonaren hipotesiaren bitartez azaltzen zuten berezitasun hori. Adibidez, berriki, beste ikerketa batek erakutsi du orka emeek jarraitzen dutela beren kumeekin lotura amatiarra izaten, baita kumeak heldu bilakatzen direnean ere.



Menopausia duen txinpantze bat, bere semearekin. ARG.: Kevin Langergraber/Arizonako Unibertsitatea.

Primateetan, ordea, uste zuten ez zutela ugaltzeko ahalmena galtzen heriotzatik gertu izan arte. Kibalen egindako ikerketak uste hori ezeztatu du, txinpantze eme horiek urte luzez bizi baitira menopausia izan ondoren. Hori bai, ez dute amonaren hipotesiaren aldeko zantzurik aurkitu; alegia, ez dute loturarik beren alabekin, ezta haien kumeekin ere.

Horrenbestez, ikertzaileek onartu dute ikerketa gutxi egin direla beste ugaltunek menopausiarik ba ote duten argitzeko eta bizitzaren etapa horretan zer gertatzen den jakiteko. ●